



Dantzan, mugarik gabe



Orain dela urte eta erdi jakin zuen Natalio Maiztegik Holandan gurpil-aulkietan dauden elbarrituentzako dantza-txapelketa bat antolatzen zela.

Garai hartan, Iruñako Infanta Elena ospitalean egiten zituen dantza erakustaldiak Nataliok, animatzaile moduan, Esther Amoros bere lankidearekin, eta pentsatu zuen egokia izan zitekeela Holandara joatea, elbarrituek dantzan nola egiten zuten ikusi eta ikastera.

Pentsatu eta egin. Iazko Aste Santuan joan ziren Holandara, Elbarrituentzako Nazioarteko XIII. Dantza Txapelketa ikustera, eta zeharo harrিতa gelditu ziren hango dantzari haien maila ikusita.

Nataliok esan digunez, Holandan 20 bat urte

Natalio Maiztegik urte eta erdi darama elbarrituei dantza irakasten



Natalio eta Ester Iruñako Infanta Elena eta Aspace ospitaletan ari dira lanean, bertako elbarrituei dantza eraginez.

daramate elbarrituentzako dantza-teknikak lantzen. "Corrie izeneko emakume bat da teknika hauetan aintzindari. Neska hau dantza irakaskerak zen, baina istripu baten ondorioz gurpil-aulki batean geratu zen elbarri. Hala ere, aukira kondenatuta egon arren, dantza egiteko kapaz zela sentitzen zuen, eta, hasieran, jendeak kasu handirik egin ez bazion ere, berakasa hasi zen, izkutu samarrean, teknika hau lantzen, dantza normalak (boleroa, rock-